

IKERGAZTE BAIONAN

Hiru egunez, euskal ikertzaile gazteek beren lanak aurkeztuko dituzte Baionan

Otsailaren 27tik 29ra bitartean euskal ikertzaile euskaldunen hirugarren kongresua izango da Baionako Errobiko campusean. 2015etik, bi urtean behin antolatzen du Udako Euskal Unibertsitateak Ikergazte izeneko kongresua, «euskal komunitate zientifiko-intelektuala trinkotzeko asmoz».

Iaz, UEUko zuzendari Kepa Sarasolak kongresu horren garrantzia azpimarratu zuen GAUR8k egin zion elkarriketan: «Aipatzekoa da azkeneko hiru urteetan egon diren Ikergazte jardunaldiak. Kongresu moduan 120 lagun baino gehiago bildu ziren 2015ean Durangon eta 2017an Iruñean. Dato-

 **IKERKUNTZA /** Xabier Izaga Gonzalez

Dozenaka euskal ikertzaile gazte bilduko dira hiru egunez Baionako Errobiko campusera hilaren 27an hasiko den Ikergazte kongresuan parte hartzeko: beren lanen berri eman eta elkar ezagutzeko. Kongresuan parte hartuko duten zenbait lagunen iritziak bildu ditugu. Ekimenaren eta egingo den lekuaren garrantzia nabarmendu dituzte.

rrer urtean Baionan egin nahi dugu, 2019ko maiatzean. Horietan ikerlari berriak biltzen ditugu. Tesia egiten edo tesia bukatuta unibertsitatean kokatzen dabiltzanak askotan ez daude giro euskaldunean edo ez daukate kontakturik inguru gertuan eta bertan esperientziak

Duela bi urteko Ikergazte kongresua, Iruñean.
Iñigo URIZ | FOKU

trukatzeko aukera daukate». Lehenengo bi kongresuetan 120 lagun bildu zirela zioen Sarasolak; aurten, berriz, askoz gehiago izango dira «euskarazko ikerketari hauspoa» emango diotenak.

Ainhua Latatu kongresuko koordinatzaile akademikoak

dioenez, ikertzaile gazteak zertan ari diren jakitea da kongresuaren helburu nagusietako bat, eta euren artean harremanak sortu eta sendotzea.

IKERTZAILEEN LANEN BERRI JAKITEKO
Ikertzaileentzat ezinbestekoa da beste ikertzaileen lanen berri izatea. Baita euskaldunentzat ere, jakina, kongresurako deialdian nabarmentzen duten bezala: «Ikertzaile euskaldunok bagabiltzalako Euskal Herriko unibertsitateetan eta ikerketa zentroetan ikertzen; badaukagulako ikertzen duguna ezagutarazteko ahalmena eta gogoia; nazioartean egiten duguna bertokoari azaldu nahi diogulako; Euskal Herrian zer ikertzen den jakin nahi dugulako; lankide izan daitekeen hori ezagutu nahi dugulako; eta edozein alorretakoak izanik ere, edozertaz euskaraz jarduteko gai garelako».

Ikergazte ikertzaile euskaldunentzako erreferente izateko bidean dagoela uste dute, horregatik gonbidatu dituzte edozein ikerketa-eremutan diharduten gazteak, giza zientzietan, gizarte zientzietan, zientzia zehatzetan, teknologian, arkitekturaren edota osasunean. Helburua nazioarteko ikertzaileen komunitate euskalduna osatzea da.

Kongresuan parte hartzeko artikulatuak, Ainhua Latatuk azaldu duenez, jakintza-arloa sailkatu eta bi ebaluatzailek aztertzen dituzte. Normalean lan gehienak onartzen dituzte; batzuk, euskara aldetik edo metodologia aldetik osatu ondoren. Azkenik, ebaluatzaile horiek proposatzen dute ahoz edo poster bidez aurkeztu diren.

Aurten parte hartuko duten zenbait lagunen iritziak bildu ditu GAUR8k. Guztiak ere bat datoz Kepa Sarasolarekin eki-



menaren egokitasuna nabarmentzerako orduan.

HASI BERRIENTZAKO AUKERA

Haizea Abrisketa urruñarra kongresuko batzorde dinamizatzaileko kidea Iker zentroko ikertzailea da eta EHUKo Historia Sailean doktore tesia egiten ari da, Kubako independentzia gerlan espainiarren armadan izan ziren euskaldunen gainekoa. «Ikergazte izatea niretzat, lehenik, gure hizkuntzari garrantzia ematea da. Gaur egun oraindik euskararen tokia aldarrikatu beharra baitago», dio. «Euskararen garapenerako garrantzitsua da goi mailako ikerketa euskaraz egotea eta Ikergazte plaza ederra eskaintzen dio aukera horri».

Haritza Camblong baionarra EHUKo Gipuzkoako Ingeniari-tza Eskolako irakasle eta ikertzailea da, eta ESTIA Bidarteko ingeniari-tza unibertsitate-eskolarekin ere kolaboratzen du ikerketa lanetan. Ikergazteko batzorde zientifikoan izango da lehenengoz. «Ikergazte izateak adierazten du, besteak beste, azken milaka urteetan bezala, euskal hiztun komunitateak oraindik egoera berriei egokitzten dakiela, agian beste mila-ka urtez bizitzeko», dio.

Xume eta labor definitu du Iduzki Soubelet Fagoagak Ikergazte: «Euskaraz ikertzen dugun pertsonon elkargunea da». Donostiako EHUKo Psikologia fakultateko irakasle donibandar honek, halaber, ikertzaileak eta haien lanak ezagutzeko aukera azpimarratzen du. «Euskaraz lan egiten dugunak gutxi garesti sentitzen dudan arren, eta maila honetan batzuetan txiki sentitzen naizen arren, sentsazio hori gaitzetzeko aukera ematen digu Ikergazte».

Marie Pourquie baionarrak Iruñeko kongresuan parte har-

tu zuen duela bi urte. Bertan afasiari buruzko lan bat aurkeztu zuen Amaia Munarrizekin batera, eta ziur da Baionakoa ere ikertzaileen arteko topaketa aberasgarria izango dela.

Marie bezala, Xantiana Etchebest mauletarrak ere parte hartu zuen Iruñeko kongresuan, «Zuberotar dardarkarien barietate sozio fonetikoaren azterketa akustikoa» lana aurkeztuta. «Esperientzia biziki ona izan zen. Nire doktoretza lantzen ari nintzen eta lanari zentzua eman nion eta plazaratu ere. Ikusi nuen interesa pizten ahal zuela. Motibazioa ekarri zidan ere, eta beste lan interesgarri batzuetan ere oinarritu nintzen».

AHALDUNTZE ESPERIENTZIA

Hirugarren aldia du Nahia Idoiaga Mondragonek Ikergazte. EHUKo Bilboko Hezkuntza fakultateko irakasle honek gai potolo bat landu du kongresurako: «La Manada' auzia Twitterren: Sare sozialetatik gizarte



Goian, 2015eko kongresuaren aurkezpena, Bilbon. Behean, Ainhoa Latatu kongresuko koordinatzaile akademikoa. Marisol RAMIREZ | FOKU - IkerGazte

eraldatuz». Ikergaztea ikertzaile euskaldun eta gaztea dela esatea asko esatea dela dio. «Ikerkuntzaren munduan gaztea edo hasiberria izatea erronka handia da; gure ikerketaren oinarrian finkatzeko momentua

baita, eta, gainera, ezagutzen ez dugun iker munduan sartzen baikara». Aurreko bi kongresuetan ere parte hartu zuen eta nolabait ahalduntze esperientziak izan zirela dio, «alor desberdinetako ikertzaileok, kalitatezko



ikerkuntza euskaraz egin deza-
kegula frogatzeko aukerak».

Batzorde dinamizatzailerako
kide da Joseba Fernandez de
Landa gasteiztarra. IXA taldea-
ren Hizkuntzaren Analisia eta
Prozesamendua masterrak ire-
ki zion bidetik sare sozialak
ikertzeko teknika berritzaileak
bilatzen hasi zen, Eusko Ikas-
kuntzaren beka bati esker.
Orain doktoretza bekaren zain
dago, lan horretan jarraitzeko.
«Nire ustez aukera paregabea
da, bai gazteontzat eta baita
euskaraz ikerketa egiten dugu-
nontzat. Bi komunitate horieta-
ko partaideok zailagoa izaten
baitugu gure lanak argitara
ematea eta Ikergazte aukera
ezin hobea da. Bestalde, ikerke-
tak erdaraz egiten dituzten
ikertzaile euskaldunentzat ere
aukera oso erakargarria izan
daiteke, motibazio bat 4-8 orri-
ko euskarazko laburpen bat
egiteko beraien lanekin, niri
gertatu zitzaidan bezala».

Maialen Sagarna Aranburu
batzorde zientifikoko kidea
EHUko Gipuzkoako Ingeniari-
tza Eskolako Arkitektura Saile-
ko irakaslea da. Usurbildar hau
duela bi urte ezin izan zen Iru-
ñera joan, baina orduan ere ba-
tzorde zientifikoa parte hartu
zuen hainbat komunikazio eba-
luatzen. «Egia esan, asko harri-
tu ninduten ikerketa lerro ba-
tzuk eta haien mailak», dio.
Haren ustez, ikergazte izateak
ez du esan nahi adinez gaztea
den ikertzailea izatea bakarrik.
Jakintza arlo gehienetan ez be-
zala, «arlo batzuetan ikergazte-
ak ez dira (edo ez gara esan be-
harko nuke) adinez hain
gazteak; arkitekturan adibidez.
Arkitekturan ez da ikertzeko
tradiziorik egon orain gutxi ar-
te eta horrek bere ondorioak
izan ditu. Ez da egon ikertzaile
gazteak lagunduko dituen iker-
keta talde sendorik eta, horren

ondorioz, ikertzen hasi garenoi
ikerketaren alorrean bideak za-
baltzen joatea tokatu zaigu». Bestetik, «Ikergazteri esker, ba-
dago *feedback* bat atzerrian
ikertzen ari diren ikertzaile eus-
kaldunen lanari buruz eta hori
oso aberasgarria da Euskal He-
rriko komunitate zientifiko-
arentzat», bukatu du.

AURTEN, BAIONAN

Kongresua Baionan egitea ere
garrantzitsua dela uste dute
ikertzaileok. Haizeak honela
dio: «Ipar Euskal Herrian eus-
kararen garapenak salto kuali-
tatiboa eman du Euskal Elkar-
goaren sorrerarekin, baina
oraindik ere hizkuntzaren gara-
pena ez dago ziurtatuta. Esta-
tus falta muga handia da zen-
tzu horretan. Halere, espazioak
irekitzen ari dira eta euskara
esparru guztietara hedatzen ari
da herritarren eta gizarte eragi-
leen nahiari esker. Euskara iker-
keta arloan ikusgarri egiteak es-
pazio berri baterako ateak
irekitzen ditu eta euskal uni-
bertsitate baten beharra ezta-
baidagai ezartzen du Ipar Eus-
kal Herrian. Euskara, gazteria
eta unibertsitatea, geroari begi-
rako aldagaiak, batzen ditu eta
aditzera ematen du euskararen
garapena hortik ere pasa behar
dela». Halaber, «euskarazko
ikerketa Euskal Herri osoan
kinka larrian baldin badago, zer
esanik ez Ipar Euskal Herrian»,

**Ikergazte ikertzaile euskaldunentzako
erreferente izateko bidean dagoela uste dute,
horregatik gonbidatu dituzte edozein ikerketa
eremutan diharduten gazteak**

**«Ikertzaile gazteak Baionan biltzea biziki
garrantzitsua da. Euskal Herri guztia gazteon
bizi eremu naturala izaten lagundu eta elkarren
artean sareak garatzen segitzeko», dio Idutzik**



Durango
kongresuaren hasiera
ekitaldia, 2015ean.
Luis JAUREGIALTZO | FOKU

nabarmendu du; horregatik,
Ikergazte jardunaldiek eztabai-
da hori ere pizteko balio behar-
ko luketela uste du.

Halatsu uste du Idutzik ere:
«Baionan izateak lapurtar beza-
la nire ikuspegitik garrantzia
berezia dauka. Batetik, esan be-
zala, euskaraz ikertzen dugu-
nak gutxi baikara eta Ipar Eus-
kal Herrian are gutxiago. Euskarari eta euskarazko iker-
ketari ikusgarritasuna ematea
ahalbidetuko dio beraz Baiona-
ko Ikergazte. Bestetik, euskal-
dunen artean ere, maiz, Ipar
Euskal Herria bigarren mailan
gelditzen den lurraldea dela us-
te dut, ahanzten den eremua.
Hortaz, Euskal Herri osoko iker-
tzaile gazteak Baionan biltzea
biziki garrantzitsua dela uste
dut. Lapurdiko hiriburua eza-
gutzen ez dutenek hiria ezagu-
tzeko, Euskal Herri guztia gaz-
teon bizi eremu naturala izaten
laguntzeko eta elkarren artean
sareak garatzen segitzeko».

Haritzak gogorarazi du Fran-
kismoaren bukaeran UEU Ipar
Euskal Herrian sortu zela, noiz-
bait euskarazko unibertsitate

bat sortzeko asmoz. «Beraz,
UEU betidanik Iparraldean izan
da, antolatzen dituen jardueren
bidez; eta Ikergazte ez da sal-
buespena. Gainera, iduri zait
garai batekin alderatuz geroz,
harreman gutxiago badela oro-
korrean Iparraldearen eta He-
goaldearen artean. Inguruan
ditugun herrialde handien he-
dabide erraldoiek eta adminis-
trazioak eragin handia dute
egoera horretan». Haren ustez,
UEU eta gisako erakundeek an-
tolatzen dituzten ekitaldiak
funtsezkoak dira Iparraldearen
eta Hegoaldearen arteko zubi-
gintzan. Marierentzat, azkenik,
kongresua Baionan izatea
«pozgarria» ez ezik, «aldi bere-
an normala» ere bada.

Astebete pasatxo barru ha-
siko da kongresua, egitarau
oparoa dakarrena: hitzaldiak,
lanan aurkezpen eta poste-
rrak, tailerrak... eta ikertzaile-
en poza eta gogoia, inolako
zalantzarik gabe euskal ko-
munitate zientifikoarentzat
ez ezik euskal gizarte osoa-
rentzat ere onuragarriak
izango direnak.

Eneko Bidegain kazetari baionarra Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko graduko irakaslea da gaur egun eta 2015etik UEUko Talde Eragileko kidea ere bai. Astebetetsu barru hasiko den Ikergazte kongresuaz aritu zaigu.

Nola ikusten duzu euskararen egoera unibertsitateetan, ikerkuntzan?

Euskarazko ikasketen eskaintza zabala da, baina oraindik anitz bada egiteko. Alde handiak dauka unibertsitate batetik bestera, edo leku batetik bestera. Zenbait arlotan, euskara gutxietsia da, eta lehenesten da erdaldunen-tzak eskaintza. Ikerkuntzari dagokionez, euskarak arazo bikoi-tza dauka.

Alde batetik, euskarari bakarrik ez dagokion arazoa dago: unibertsitateko irakasleei eskatzen zaie ikerketa egitea eta argitalpenak lortzea, ahal bada indize handiko aldizkarietan, baina, paradoxikoki, gero eta baliabide gutxiago eskaintzen zaio ikerketari. Gainera, aukerak mugatuta daude ikerketa lan hori plazaratzeko, ez dagoelako ikertzen ari diren guztien lanak argitaratzeko adina argitalpenik. Euskaraz ere gutxi daude, eta daudenak ere ez dira indize oso altukoak. Horri lotuta dago euskararen bigarren arazoa: ikerlariak ingelesez idatzi eta argitaratu behar izaten dute, aldizkari aukera zabalagoa dagoelako eta indize altuagoa dutelako. Egia da hainbat ikerketa arlo ez direla mugatzen Euskal Herrira, eta beraz komeni dela ingelesez ere zabaltzea. Baina beste ikerketa askoren interes-eremua Euskal Herrira mugatzen da, eta ez dago behar adinako biderik ikerketa horiek zabalkundea emateko euskaraz.

Aurtengo Ikergazte kongresua Baionan egiteak zer esan nahi du?

UEUren eremuaren parte da, eta erabat naturala da Baionan ere antolatzea Ikergazte. Han ez antolatu izana litzateke anormala. Hori argi utzita, azpimarratu behar da ezinbestekoa dela euskal unibertsitatearen ekoizpena Lapurdira ere hedatzea. Erabat erdalduntzen ari da Lapurdi, eta euskara marjinala da Baionan. Beraz, Ikergazte han antolatzeak balio du euskarazko ikerketaren berri ezagutarazteko, euskara erabat zokoratua dagoen lekuan.

Halaber, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako euskaldunek ikusi ahal izanzen dute Euskal Herrian badagoela aukera euskaraz ikasi eta ikertzeko. Ikasi behar dugu unibertsitatea modu nazionalean ikusten, eta Lapurdiko eskaintza eskala nazional horren barnean ulertzen. Horretarako, Euskal Herrian dagoen eskaintza egokitu behar da Euskal Herri osoko herritarrentzat. Muga administratiboak ezin di-

ENEKO BIDEGAIN

UEU-KO KIDEA

Mondragon Unibertsitateko irakasle eta UEUko Talde Eragileko kidea aurki bere sorterrian izango den Ikergazte kongresuaz mintzo da.

IkerGazte / UEU

«Ikasi behar dugu unibertsitatea modu nazionalean ikusten»

ra traba izan. Baina mapa mentalak ere aldatu behar ditugu.

Zergatik da garrantzitsua Ikergazte bezalako kongresu bat?

Leku gutxi dago ikerketan hasiberriak direnek beren lanak plazaratu ahal izateko. Are gutxiago euskaraz. Beraz, Ikergazte ematen du aukera bestela aukerarik ez luketen ikerlari gazte askoren lanak ezagutzeko. Gazteak bide bat egiten hasten laguntzen ditu Ikergazte.

Zer nabarmenduko zenuke?

Ikergazte ematen du aukera Euskal Herri osoko eta unibertsitate guztietako ikerlari gazte (edo ikertzen hasiberriak diren ez hain gazteak) elkartzeko. Hori aberasgarria da herri gisa.

Zergatik da hain garrantzitsua dibulgazioa? Ematen al zaio behar lukeen garrantzia?

Zertarako ikertu, gero ikerketa horiek «nehork» irakurriko ez dituen aldizkarietan gelditzen badira? Hau da, askotan, ikerketen emaitzak aldizkari zientifikoetan argitaratzen dira, eta mundu akademikoan gelditzen dira. Ikerketa asko gure gizarte hurbilari lotutakoak dira, eta han lukete eragina. Baina aldizkari zientifikoetara mugatzen bada haien hedapena, ez dute eraginik eragina behar luketen lekuan. Adibidez, gure ikerketa taldean egin dezakegu ikerketa bat euskal kazetaritzak konpondu behar duen arazo bati buruz. Emaitza horiek Erresuma Batuan, Japonian, Suedian edo Ameriketako Estatu Batuetan aurkezten baditugu, eta horretara mugatzen bagara, alferrik ari gara. Euskal Herriko aldizkari zientifiko batean argitaratuta ere, ez du askorako balio, ez badugu, gero, dibulgazio lanik egiten eta ez bagara euskal kazetaritzan ari direnengana joaten.



Argazkia: Bob EDME | FOKU